



AURKEZPENA

Salome Campos Zeharkaldia itsas zabaleko igeriketa-proba bat da (lehiakorra ez dena). 5.000 metro dira, Bermeoko portutik Izaro uharteraino joatea eta bertatik itzultzea. Horrela, ia duela 100 urte Camposen fundatzaileak balentria egin izana ospatzen da.

Lehenengo edizio hau doakoa eta erakustaldi gisakoa izango da, eta igerilarien kopurua mugatuta egongo da.

Probaren distantzia eta ezaugarriak kontuan hartuta, parte-hartzaileek, federatuek, antzeko distantzia daukan zeharkaldi bat egin izana egiaztatu beharko dute.

EZAUGARRIAK

Data:	2013/09/07
Ordua:	14:00
Mota:	igeriketa (zeharkaldia)
Distantzia:	5.000 m
Irteteko lekua:	Bermeo (Bizkaia)
Helmuga:	Bermeo (Bizkaia)
Izena emateko hasiera-data:	2013/07/15
Izena emateko amaiera-data:	2013/08/30
Laguntza medikoa:	BAI
Federatuta egon behar da:	BAI
Adin-muga:	18 urtetik gorakoa



OHIKO GALDERAK - F.A.Q.

1.- Zein egunetan egingo da zeharkaldia?

Zeharkaldia irailaren 7an egingo da. Bermeoko portuko arrapatatik, neskak 14:00etan irtengo dira, eta mutilak 14:15ean.

2.- Zein izango da ibilbidea?

5 kilometroko luzera izango du, Bermeoko portuko mailutik Izaro uharteraino joan eta Bermeoko portura itzultzea. Antolakuntzak bere gain hartuko du segurtasuna. Mailutik kanpoko nasara irtengo da, eta Izaro uhartearen ondoan dagoen buia bateraino joan beharko da; han buelta eman eta Bermeoko nasako abiapuntura itzuli. (ikus mapa).

3.- Noiz hasi eta bukatuko da izena emateko aldia?

Izena emateko epea 2013ko uztailaren 15ean irekiko da. Izena emateko azken eguna 2013ko abuztuaren 30a izango da.

4.- Zenbat balio du izena emateak?

Izen-ematea doakoa da, erabat, eta plazak izena emandako hurrenkeraren arabera esleitu eta Zeharkaldiaren webgunean argitaratuko dira.

5.- Zer egin behar dut izena emateko?

Izena emateko, bidali mezu elektronikoa bat info@salomecampos.com helbidera, eta adierazi datu hauek:

- Izena eta bi abizenak
- NAN
- Helbidea, PK, Herria, Probintzia, Herrialdea
- Harremanetarako telefonoa
- Harremanetarako helbide elektronikoa
- Jaioteguna
- Federazioko Txartel zk.
- Nahitaezkoa izango da taula honetako denbora berberak edo hobeak egiaztatzea:

	2000m	2500m	3000m	3500m	4000m	4500m	5000m
GIZONEZKOAK	33,20	41,40	50,00	58,20	1h06,40	1h15,00	1h23,20
EMAKUMEZKOAK	36,40	45,50	55,00	1h04,10	1h13,20	1h22,30	1h31,40



6.- Nola egiazta dezaket Salome Campos-en antzeko ezaugarriak dituzten zeharkaldiak egin izana?

Bidal iezaguzu parte hartu duzun probaren denborak jasotzen dituen PDF bat, zure izen-ematearekin batera, info@salomecampos.com helbide elektronikora.

7.- Zein da Probaren araudia?

Probaren araudia www.salomecampos.com webgunetik deskarga daiteke.

8.- Nola jakin dezaket izena emanda nagoen?

Salome Campos Zeharkaldiaren webgunean bertan ikus daiteke izen-ematearen egoera.

9.- Zer gertatuko da, izena eman ondoren, lesio batengatik edo bestelako arrazoiren batengatik ezin badut parte hartu?

Izena eman ondoren, lesioren bat baduzu edo ezinbesteko bestelako arrazoi batengatik ezin baduzu parte hartu, eta zure izen-emateari baja eman nahi badiozu, egin dezakezu. Baja-eskaera abuztuaren 30a baino lehen aurkeztu behar zaio antolakuntzari, info@salomecampos.com helbidean.

10.- Non jasoko dut probarako txanoa?

Probaren egunean bertan, 9:00etatik 12:00etara, Bermeoko nasan jaso ahal izango da, baita identifikazio-zenbaki bat ere, gauza pertsonalak izango dituen zure poltsari lotzeko.

11.- Nola heldu naiteke irteerara?


Irteera Bermeoko portuko nasan egongo da. Bilbotik Bermeora joateko autobus-zerbitzua dago, eta Bilbotik eta Zornotzatik tren-zerbitzua.

12.- Non laga ditzaket nire gauzak?

Zaindutako eta behar bezala identifikatutako kontsigna egongo da, Bermeoko portuan, Irteera/Helmugaren ondoan.



NOLA IRITSI:



IRTETEKO LEKUA/HELMUGA: BERMEOKO PORTUA

